



GI-3272
LASAO 350 m

ARATZ-ERREKA

MATXINBENTA

NUARBE
5 BEIZAMA

URRESTILLA

AUZOAK PLAZARA

Herrigunetik aparte dauden arren, auzo-alkate figurak distantziak laburtu ditu 20



999 €*
Garbigailua
7 kg., 1.400 r.p.m



999 €*
Lehorgailua bero
bonba 8 kg.



599 €*
Ontzi-garbigailua
G 4100 SC Brws Special

Ospatu Mielerekin kalitatearen 111 urte

Miele garbigailuek zure arroparen zainketa ezin hobean 111 urte bete dituzte.

Hau ospatzeko Mielek Edition 111 aurkezten dizu, ospakizun berezietako prezioan eskainiz etxetresna elektrikoen sorta zabala.

Gerturatu Milar Larramendira eta aprobetxatu Mieleren kalitatea etxera eramateko aukera ezin hobea.

Azpeitia-Azkoitiko Mieleren banatzaile ofiziala:



Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897



Made in
Germany

*2012.10.01etik 2012.12.31ra (biak barne) gomendatutako prezioak. RAEE kostuak eta % 21eko BEZ barne.
Beste eskaintzekin bateraezina den prezioa.

Miele
SIEMPRE MEJOR

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 144.a (2012ko azaroa)

Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730 792 /

oalegia@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. EREGI

Web orrialdea.

www.uztarria.com

Uztarria herri aldizkariaren

laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Uztarriak

Bai Euskarari

Oharra. Uztarria

Komunikazio

Taldeak ez du

bere gain hartzen

herri aldizkariaren

adierazitako

esanen eta

iritzien

erantzukizunik



2012KO AZAROKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?

16



iritzia

Inkesta. Erabiltzen al duzu erosketetarako 'tupper'-a? **13**

mamia

EHE. Euskalgintza lozorrotik atera eta kontzientziazioan eragiteko prest **04**
Klik! San Martin egoitzako egoiliarren egunerokoa, argazkitan **16**

Agustin Arenas.

Denda itxita bai, baina argazkigintzari estuki lotuta **24**

jakiteko

Enrike Zurutuza.

Hari eskainitako biografia argitaratu du Uztarriak **34**



24



34


Ba aL dakizu musekoak ez bezala, poker txapelketa herrikoiak antolatzea ez dela Legezkoa gurean? **Uztarria**

egin zaitez bazkide Uztarrian



943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira urtean.
gara dagoeneko Uztarrian; 126.540 euroko aurrekontua du Uztarriak 2012. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra'

IÑAKI MARTINEZ/XABAT LABORDE

Euskal Herrian Euskaraz-eko kideak

“Badago Lana jendea kontzientziazitzen”

EHEk talde berria sortu nahi du Azpeitian, bere garaian etendako erreleboari bidea emanda. Euskarak gaintitu gabeko mugak dituelako, gurean ere bai. 📌 Mailo Oiarzabal

Herri euskalduna bai, euskaldunenetakoa, da Azpeitia. Euskararen aldeko kontzientzia, ordea, ez da hain agerikoa; ez, behintzat, herriko euskalgintzak egun erakusten duenari erreparatzen bazaio. Euskararen normalizazioari begira lanean diharduen talderik ez da egun herrian, eta horri buelta eman nahi diote Euskal Herrian Euskaraz (EHE) mugimendukoek. Iñaki Martinez (Azpeitia, 1976) deseginda dagoen Azpeitiko EHEko azken kideetakoa da; Xabat Laborde (Billabona, 1984), berriz, EHEren Gipuzkoako koordinatzailea.

Zertan da EHE mugimendua? Zer lan-ildo eta lehentasun dituzue?

Xabat Laborde: Saiatzen ari gara herriz herri, euskalgintzako beste eragileekin elkarlanean, euskaraz bizitzearen aldeko ekimenak egiten. Urtero izaten ditugu zitak. ‘Euskaraz bizi’ eguna, esaterako; iaz Donostian izan zen eta aurten Nafarroan egingo dugu, Agoitzen, apirilean. Korrikan ere [2013an, martxoaren 14tik 24ra], beti bezala, hartuko dugu parte, AEKrekin elkarlanean. Ikasturte hasieran, berriz, abenduaren 1ean, Kontseiluak deitutako nazio manifestazioa dugu, *Euskaraz bizi nahi dugu* lelopean egingo dena; hor ere elkarlanean gabiltza, Kontseiluaren baitan gauden eragileekin. Bi puntu azpimarratu nahi ditugu. Alde batetik, nobedade bezala,



Xabat Laborde eta Iñaki Martinez.

||| Mailo Oiarzabal

mahai gainean jarriko dugu euskararen ezagutzaren unibertsalizazioaren gaia; euskara jakiteko eskubidea badugu, izan ere, baina euskaraz bizi nahi dugunok Euskal Herrian mundu guztia euskalduna izatea nahi genuke,

eta zentzu horretan aurrerapauso handiagoak ematea eskatuko dugu. Bestetik, euskararen arnasguneak deitzen zaienak, euskara nagusi izango den espazioak eta guneak, gehiago sortu, daudenak babestu eta hedatu egin behar ditugula aldarrikatuko dugu; bai funtzionalak, soziolinguistikoki erdaldunagoak diren tokietan txertatuta dauden gune euskaldunak, eta bai geografikoak, UEMAn elkartuta dauden udalherri euskaldunak.

Arnasgune horietako bat da Azpeitia. Aldiz, euskalgintza desaktibatuta dagoela esan daiteke, erreferente argirik gabe edo.

Iñaki Martinez: Egia esan, orain urte batzuk egundoko dinamika

egon zen. Bai EHE, AEK, Korrikaren inguruan dezenteko lanketa egiten zen... Baite Euskara Elkar-tea ere sortu zen, gero Uztarriarekin bat eginda aritu zena. Udalean Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN) martxan jarri zenean sortu zen Aholku Batzordean ere hasi ginen parte hartzen; erabaki ahalmenik ez zegoen, ordea, eta EHEk erabaki zuen joateari uztea. Udal gobernua aldatu zenean mahai ezberdinak sortzen hasi ziren, tartean Euskararen Mahaia, eta hor hasi ginen berriro. Baina, berriro aldaketa egon zen Udalean eta bertan behera gelditu zen. Eta, hogei urteko ibilbidearen ostean [1989an sortu zuten Azpeitiko EHE], taldearen desgastea. Kide berriak falta ziren...

Errelebo falta?

I.M.: Bai. Hori izan da Azpeitian gertatu dena. Ez dela jende berri-rik sartu, eta beti-betikoak erre-tzen, nekatzen joan direla. Nik uste dut guk talde bezala lan de-zente egin genuela bere garaian, osasungintzan batik bat. Azpeitia UEMAn sartzearen alde ere era-gin berezia egin genuen.

Azpeitian etxean, kalean, lankideekin... euskaraz egiten du jende gehienak. Euskararen erabilera guztiz 'normalduta' dagoela ulertu al dezake jendeak? Normalizaziorako falta zaigunaz ez gara jabetzen, agian?

I.M.: Hori Azpeitian beti egon izan den arazoa da. Bai, eguneroko bi-zitza euskaraz egingo dugu. Etxean, lagunekin, kalean... erabat. Azpeitian %89k hitz egiten dugu euskaraz. Baina ez gara jabetzen zenbait tokitara joaten garela, an-bulatoriora, banketxera edota epaitegira, eta guene horietan ez daukagula euskaraz bizitzeko au-kerak hori. Garai batean, EHeren barruan, herri bakoitzak, talde ba-koitzak, arlo jakin bat lantzen zuen, eta gurea osasungintza zen. Hasiera batean justizia zen, eta abizenak euskalduntzen-eta Baiterekin batera nahikoa lan egin zen; baina beste zenbait ka-



Azpeitiko EHEko kideak anbulatorio aurrean, prentsurrekoan, osasungintza euskalduntzea aldarrikatuz. |||EHE

sutan pareta eta pareta besterik ez genuen aurkitu. Orduan osa-sungintzan eragitea erabaki zen, Azpeitian batik bat umeek eta adineko jendeak arazoa zutela ikusten genuelako, askotan ezin zirelako medikuekin komunikatu.

Pertzepzio horrek eraginik ba al du euskalgintzaren de-saktibazioan?

X.L.: EHEn justu gai horrekin ba-genuen halako kezka bat. Azpeiti-ko taldeak ere kezka bera helarazi zigun, zeregin falta bat-edo egon zitekeela, zer esparrutan eragin, eta nola eragin. Ordura arte, igoal, udalerrri edo zonalde eus-kaldunetan, arnasmune deitzen diegun horien inguruan, EHeren baitan ere askorik ez genuen pen-tsatu izan, zer egin edo nondik jo genezakeen. Harrezkero, zonal-de euskaldunak kontuan hartuta hausnartzen hasi ginen, zer egin. Azpeitia da adibideetako bat. UEMAn sartzea bazen helburu bat, baina UEMA ezin zen azken helmuga bat bihurtu. Arnasmune-ek euskararentzat duten garran-tziaz jendea kontzientziatzen oraindik lan bat bazegoela ikus-

ten genuen. Arnasmuneak eduki-tzea hizkuntza baten biziraupene-rako klabea den kontua da; eta ez dakit zenbateraino kontziente za-reten edo garen, herri hauetan bizi garenak, horretaz. Gainera, arnasmuneetako jendeak euska-raz bizi den herriar aitzindarida-riaren papera jokatu dezakeela uste dugu, hain euskaldunak ez diren inguruetara ateratzen dene-an. Horretarako, ordea, kontzien-te izan behar da.

Herrian lokartuta-edo dago-en euskalgintza biziberritu nahi duzue EHetik. Zer asmo dituzue?

“Deialdi bat egitea aztertzen ari gara, ea jendea animatzen den”

“Arnasmuneak edukitzea klabea da hizkuntzaren biziraupenerako”

I.M.: Deialdi bat egitea aztertzen ari gara, jendea berriro taldea sortzera animatuko al litzatekeen ikusteko; ni prest egongo nintza-teke horretan laguntzeko. EHEk badu hor materiala. Mugimen-duak 30 urte bete zituenean egin zen dokumentala herrian emate-ko asmoa daukagu, adibidez. Eta jendea interesatuta badago, gipuzkoa@euskalherrianeuskaraz.org e-postara ere idatzi deza-kete.

X.L.: Ikusten ari gara, azken urte-an batik bat, EHE indartzen ari dela Gipuzkoan. Belaunaldi gaz-teak ari zaizkigu inguratzen. Uste dugu Azpeitian ere egon daiteke-la kezka hori, oso herri eta inguru euskalduna izanagatik ere, orain-dik arlo guztietan euskaraz bizi-tzeko zailtasunak nahiko ageriak direlako.

I.M.: Ikasturte honetan Korrika ere izango dugu. Hori ere apro-betxatu nahiko genuke, nolabait; ea jende bat elkartzen den horren bueltan, Korrikaren etorrera anto-latzeko, eta gero aurrera egiteko talde bat sortzeko modua egiten duten.*

Kontsumo eraginkorra

Herrian ospatu berri den ekimen batek kontsumo jasangarri baten aldeko apustua egitearen beharra azalarazi du. Kontsumo jasangarriaren aldeko azokak denoi gogorarazi beharko liguke badaudela gure sistema ekonomikoaren ardatza den jokabidea erregulatzeko moduak.

Sistema kapitalistaren oinarrietako bat, eskaintza eta eskaeraren legeak ezartzen duen bezala, kontsumitzaileen jarrera da. Jarrera hori ez da mugatzen soilik kontsumitzera; zer produkturen eskaera dagoen ere oso garrantzitsua da. Kontsumo eskaera horrek garai bakoitzeko gizartearen beharrak adierazten dituela diote ekonomian adituek.

Halere, marketin eta iragarki kanpaina bortitzek ere eragin dezakete kontsumitzaileen jokabidean. Hala, sistema kudeatzen duten botere faktikoei badakite oso garrantzitsua dela beharrak ez badaude beharrezkoa dela sortzea. Hau da, kontsumitzaileei ahalik eta estimulazio handiena eman behar zaiela ez ahazteko beraien betebeharra produktuak erostea dela etengabe. Dinamika hau hautsiz gero, sistemaren oinarriak kolokan jarriko lirateke eta gaztelerako esaera batek dioen bezala, *con las cosas de comer no se juega*.

Hori oso garbi daukate merkatuak zuzentzen dituzten pertsonak eta horregatik kontsumitzailea gaizki hezi dutela adierazi dezakegu. Benetan ez ditugun beharrak sortarazi dizkigute eta horrek kontsumo ohitura txarretara bultzatu dituzte kontsumitzaileak. Orain pairatzen ari garen krisi ekonomikoaren jatorrietako bat hori dela aipatzen dute batzuek, eta nire ustez ez dute arrazoi faltarik. Ia denok bizi izan gara gure posibilitateen gainetik, ondasun material eta ez materialen kontsumo zurrumbilo batean murgilduta.

Kontsumo jasangarriaren aukera

Baina posible da kontsumitzailea kontsumo ohitura berrietan hezte? Ez da erraza izango baina pauso asko eman daitezke kontsumo



|||||||markel mendizabal|||||

|||Gurera etorritz,
nik gure arbasoen
kontsumo ohiturak
aldarrikatu nahi nituzke

jasangarri baterantz. Gure beharrak aztertea litzateke aukeretako bat, eta beti kontsumitu aurretik ondo pentsatu zenbaterainoko beharra dugun. Ildo honetan, badira urte batzuk New Yorken inizatiba bitxi bat martxan jarri zutela. Janari produktuen kontsumoarekin zeukan zerikusia ekimenak.

Iniziatibako kideak hiriko jatetxe ugariatik ibiltzen ziren kontsumorako data pasata zuten produktuen bila; haien iritziz hori ekoizleen estrategia bat zen, jatetxeei produktu horiek bota eta berriak erostera bultzatzen ziena. Izugarritzko arrakasta izan zuen iniziatibak eta askoren kontzientziak astindu zituen.

Gurera etorritz, nik gure arbasoen kontsumo ohiturak aldarrikatu nahi nituzke. Batzuek usteko dute orain krisia dagoelako dela beharrezkoa arropak edota eskola liburuak trukatzea baina oparotasun garaietan ere aplikatu daitezkeen jarrerak dira. Azken finean, etxea baina zein leku hoberik kontsumo ohitura egokiagotan hezteko. Denon ardura da, hala ere, ondorengo belaunaldiei kontsumo jokaera hobea erakustea, ez bakarrik dirua aurrezteagatik, gizarte osasungarri baterantz bideratuko garelako baizik.✘

Ezkontza-kontzeptu berria asmatu dute Aisia Hotelek

Aisia Deba eta Lekeitioko zuzendaritza berriak bertako produktuen aldeko apustua egin du.

‘Aisia Hotelak’ kateak zer aurreikuspene egiten du 2013. urterako?

Nahiz eta egoera ekonomikoa txarra izan, etorkizunari baikor begiratzen diote, gaur egunean aurreko urteetan baino bankete kopuru handiagoa ematen ari direlako.

Alde batetik, Aisia Debako jatetxearen arduradun Mireya Azpiazuk adierazi digu oso pozik dagoela aurten izan duten ezkontza kopuruarekin, eta 2013rako aurreikuespen ona egiten du. Zentzu honetan, koktelen aurkezpena eraberritzen eta ezkontzetako menuetan berrikuntzak sartzen ari dira, bertako produktu asko erabiliz.

Eduene Horta, Aisia Lekeitioko jantokiko zuzendari berriak, gastronomia proposamen berriak bezeroen artean izan duen erantzunaren balantze positiboa egin digu. Eta datorren urtera begira, oso baikor ageri da. Horrez gain, beste alor batzuetan ere lan handia egiten ari direla gaineratu du; hala nola, kafe-tegiko neguko eskaintza hobetu dute, jadanik Lekeitioko herritarren aldetik erantzun zabala jaso duena.

Zer ezaugarri bereizten du ‘Aisia Hotelak’ bere lehiakideetatik?

‘Aisia Hotelak’ kateak sei establezimendu ditu Euskadin eta Kantabrian barrena. Eraikin horietako txoko bakoitza erlaxaziorako eta gozamenarako pentsatua dago. Ingurumenarekiko errespetuan, kalitatezko gastronomia sortzailea eta hidroterapia bidez osasuna eta edertasuna lantzea dira helburuak.

Identitate propiodun espazioak ditu, toki pribilegiatueta kokatuak eta diseinu moderno dutenak, zerbitzu eta arreta profesionala uztartuz.

Langilegoa da arrakastaren funtsa; bai Aisia Deban eta bai Aisia Lekeition. Hoteleko



Aisia Lekeitioko Eduene Horta eta Aisia Debako Mireya Azpiaz.

zuzendaritzak aldatu dira, eta inguruetakoak diren pertsonak jarri dira lidergo hartuz. Horrela, Myreia Azpiazeekin kontaktatzen dute Aisia Deban, Xagit Andonegi duelarik sukaldetako buru eta Aisia Lekeition, Eduene Horta Javier Ugarterekin batera osatzen du ekipoa. **Aisia Deba eta Aisia Lekeitioko arduradunek beraien arrakastaz honakoa esan digute.**

“Lehenik eta behin, gure hotelen kokapena. Hotelak hondartzako lehen ilaran egonda, jantokitik bista ezinhobeak ditugu. Gure terraza, ezkontza zeremonia burutzeko leku perfektua, gure koktel linea berria dastatzeko leku zoragarria da. Banketeei dagokionez, bertako produktueta oinarritutako kalitatezko gastronomia lantzen dugu, inguruko produktu freskoak erabiliz; Ondarroako arraina,

adibidez. Eta hau guztia gutxi balitz, bezeroak nahi duen modura personalizatzen ditugu ezkontzak, mota guztietako espakizunak egiteko aukera emanaz.✱

**Informazio +
902 820 997**

www.aisiahoteles.com



Mundu 'horia'

Gizon honek zeharo harapatu nau. Zuetako askok seguruenik aspalditik ezagutzen duzue, baina nik oraintsu izan dut bere berri. Sant Jordi egunean ezagutu nuen Maxi Eroskin. Inork libururik oparitu ez eta neuk erosi nuen: *Si tu me dices ven lo dejo todo... pero dime ven*. Liburu honekin mundu desberdin bat ezagutu dut, ALBERT ESPINOSAren kolore *horiko* mundua.

Kolore horia gustatzen zaio, eguzkiaren kolorea delako, bizi poza ematen dio, epeltasuna... eta kolore horren izena jarri dio bere munduari.

Albert Espinosak, mundu berri bat sortu du, mundu *horia*, non ez dagoen araurik, ez baitzaizkio gustatzen. Berak pertsona bereziak aurkitzea atsegin du, pertsona *horiak*. 23 ditu, *El mundo Amarillo* liburuan jasota.

Pertsona horiek, adiskidetasun mota berri bat osatzen dute; ez dira ez maitaleak ez adiskideak ere. Klean daude, gure ondotik pasatu eta elkarriketa xume batekin bizitzaren ikuspuntua aldatzen digutenak dira. Ezagunak edo ezezagunak. Askotan gure antzekoak, instant batean gure bizitzaren zati bihurtu eta edozeinek baina gehiago ulertzen eta laguntzen digutenak. Pertsona *horiek*, esaldiak oparitzen dituzte, asko laguntzen duten esaldiak.

Entzun eta aurkitu 'horiak'

Hau lehenengo aldiz irakurri nuenean, berehala hasi nintzen nire bizitzako "horien" bila.

28 asteko mutikoa galdu berri nuen, lur jota eta aurrera jarraitzeko gogo gutxirekin, nire ilusio eta amets denak ilun. Emakume bat ezagutu nuen eta esaldi bat oparitu zidan ipuin baten barruan, erreinua galtzen zuen errege bati buruzkoa. Askotan entzun dugun esaldia zen, arrunta, baina momentu horretan behar zuena, aurrera jarraitzeko indarra eman zidana: HAU ERE PASATUKO DA. Asko pentsatu nuen izan genuen elkarriketaz eta oparitu zidan esaldiaz, bizitzan dena




|||||||nagore illarramendi|||

|||Eta zuk, ezagutu al duzu inoiz esaldirik oparitu dizun pertsona horirik?

pasatzen da. Hainbestetan entzun nuen lehenago... baina oraingoan emakume hari entzunda, esaldiak soinu desberdina zuen, sinestu egin nuen. Eta egia da, momentu hartan sentitzen nuen mina arindu zen.

Askotan, jendeak esandakoa ez dugu aintzakotzat hartzen, hitz egiten digute bai, baina ez dugu entzuten. Bada, nik proposamen bat egin nahi dizuet. Klean, supermerkatuan, kontsulta kanpoan... entzun jendeak esateko duena eta agian zeuen pertsona *horiak* aurkituko dituzue. Eta oparitzen dizkiguten elkarriketak eta esaldi *horiak* elkarbanatuko bagenu, Albertek esaten duen bezala gure ingurua eguzkiaren kolorez, epeltasunez, biziz... esaldi *horiz* beteko genuke.

Eta zuk, ezagutu al duzu inoiz esaldirik oparitu dizun pertsona horirik?*



47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

|||ZER DIO?|||

Azpeitian bipartidismorantz

EAJ-PNVk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Azpeitian Bilduk jaso du boto gehien, baina asko gutxi da udal hauteskundeetan izandako aldea. Oraingo emaitzak udal hauteskundeetara eramanago bagenitu, Bilduk 9 zinegotzi izango lituzke, eta PNVk 8. Hirugarren indarrak, PSE-EEK, ez luke zinegotzirik izango. Datuei begiratzuz gero, asko parekatu dira. Bilduko 136 boto PNVra aldatuko bagenitu, PNVk aurrea hartuko lioke Bilduri, eta zinegotziak alderantziz banatuko lirarteke, 9 PNVk, eta 8 Bilduk.

PNVk udal hauteskundeetan baino 1.107 boto gehiago lortu ditu. Historikoki lortu izan dituen boto kopurutik hurbilago dago. Aurreko hauteskundeetan, besteak beste, Foru Aldundirako eta Udaleraiko boto kopuruak alderatu egiten genituen. Udaleraiko 271 boto gutxiago zituen. HamaikaBatek jaso zituela boto horietatik gehienak adierazi genuen, baina ez denak. Baziren tartean Bilduri “prestatutako” botoak.

Oraingo emaitzekin baieztatu egin dugu orduko iritzia. PNVk aurkeztutako zerrendari uko egin zion hautesleriak. Eta zerrenda hura jokoan ez dagoela, berreskuratu egin ditu orduan galdutako boto haietako asko eta asko.

Bilduk 736 boto gutxiago jaso ditu. Ikusi beharko da orokorrean, Baskongadetan, emandako jaietsieraren arrazoia. Arrazoi ugari izan daitezke, Azpeitian ere eragina izan dutenak, noski. Halere, esanguratsua egin zaigu Donostiako kasua. Lehenengo indarra izatetik hirugarren indarra izatera pasatu da. Gestioarekin zerikusia duela ematen du. Azpeitian ere eragina izan zezakeelakoan nago. Baina alkatetza jokoan ez izateak

ere izango zuen bere eragina. Bi zerrenda haietatik aukeratu beharrrak “prestatutako” boto asko eman zizkion Bilduri, tartean PNVtik etorritako batzuk. Lau urte hauetan egingo duen gestioak erabakiko du boto horietako asko mantenduko dituen ala ez. Hasieran aipatu dugun 136 botoko joan-etorriak ez dirudi kopuru handia aldaketa eragiteko. Laburbiltzeko esan genezake bi alderdi nagusiak oso-oso parekatuta daudela.

PSE-EE-k lortu dituen 368 boto ez lirateke nahikoak zinegotzia lortzeko. Azpeitian gutxi gora behera 400 botoko izan ohi da zinegotzia. Alkatetza lortzeko aukerarik gabe, ez dirudi kopuru hori handituko litzatekeenik. Hirugarren indar batek zinegotziren bat lortzeko aukera ia ezinezkoa dirudi. Are gehiago HamaikaBat desagertutzat eman dezakegunean, eta Aralar Bildu koalizioaren barruan sartu denean. HamaikaBat aurkeztu ere ez da egin oraingotan. Bere botoak PNVra joan direla onar genezake, arazo handirik

gabe. Aralar Bildu barruan sartu da, baina ez dirudi boto asko eman dionik. Ezker abertzalearen batasun itxura handiagoa ematen du Bilduk, baina botoetan nabarmendu gabe.

Guzti hau kontuan izanda, eta Azpeitiari dagokionez, bi ondorio nagusi ateratzeko ditzakegula uste dut. Lehenengoa bipartidismo baterantz goazela. Badirudi alkatetza urte luzeetan PNV eta Bilduren arteko kontua izango dela. Ez du hirugarren indarren bat azalduko denik ematen, bien arteko lehian epaile izateko.

Bigarrena, bi alderdien artean “enpate tekniko” dagoela, eta alkatetza bereziki bi irizpideren arabera jokatu dela hurrengo udal hauteskundeetan (irizpide orokorrak baztertu gabe). PNVren zerrendak lortuko duen oniritziaren eta Bilduk egindako gestioaren arabera izango dira emaitzak. Nota handiena lortzen duenak izango du alkatetza.✱

|||||joxin iturriotz|||
(soziologia politikoan lizentziaduna)

|||EAJ-PNV eta Bildu
oso-oso parekatuta
daude. Bi alderdien
arte “enpate
tekniko” dago

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Oharrak euskaraz.

Dendari honek tartetxo bat hartu du kafe bat hartzera joateko; nolanihi ere, bezeroei ohartxo hau utzi die euskara hutsean. Bejondeiola!  Uztarria

**BEHERA.** Nik zuri flamenkoa; zuk niri euskara.

Andaluziako dantza-irakasle honek trukea egin beharko luke azpeitiar ikasleekin. Alegia, euskara ikastearen alde, flamenkoa erakutsi ikasleei.  Uztarria*



Pako Aristi.

ESANA DAGO

“Euskaldunok politikaz haserretu gabe hitz egiten ikasi beharra dugu”

PAKO ARISTI
Idazlea

“Lehen, jende pobreaken eta aberatsaren artean alde handia zegoen. Orain, hain handirik ez. Klase ertaina hazi egin da. Hobe da egoera ekonomikoa”

XABIER AZKARGORTA
Boliviako futbol hautatzailea

“Akilino Amezuak bere garaiko organo garrantzitsuenak egin zituen”

ESTEBAN ELIZONDO
Organo-jotzailea eta katedraduna





txetxu urbieta

Koherentea

Kontraesanez jositako bideak koherentziara eramaten zaitu. Nik dakidala, esaldi borobil honek ez du aita jakintsu edo ospetsurik, oraintxe bertan neure inkoherentziak asmatu duen irteera kirten bat besterik ez da. Esaten eta egiten duzuna, anaia bikiak izatea ia ezinezkoa bada ere, bien arteko lotura estua izatea da gizaki zentzudun ororen asmoa, bizitza izeneko itzaiak uztarri berean lotu beharreko idi pareak.

Nire burutazioetan kirolari eredugarria naiz. Kirolaren funtzio anitzen ezagutza dut. Kirolak gauza askotarako balio du. Lehiatzeko, mugak aurkitzeko, hezteko, osasuntsu bizitzeko, lagunak egiteko (bakarren bat galtzeko ere bai), aberasteko... Nik kirola, kirolaren baloreetan hezteko eta osasuntsu bizitzeko aukeratzen dut.

Nire aukera ideologikoa, ordea, ez dator nire eguneroko jardunarekin bat. Baloreena bai, baina gainontzean, osasun arazotxoentzuz, *na-de-na*, ezer ere ez.

Nire ogibidea ere kirolarekin lotuta dago, lehiaketako kirolarekin, profesionalarekin, diruz edo jardunez. Askotan aurpegiratzen didate irratiz mezu bat luzatu eta kalean kontrakoa zabaltzen dudala. Eta egia da. Baina horrela da. Behobia da adibide bat. Irratian nire Behobia ordubetez azpikoa da, lagunartean hortik gorakoa. Hortik bizi direnek sufri dezatela, beste guztiek festaz, korri eginez, goza dezatela. Bakoitzak bere aukera egin dezala. Niretzat ordubetik atzerako guztien markekin berdina dute; marka bakoitzaren historiak, balore ezberdina. Orain ere lagun pilo bat egin dut. Kontraesanez jositako bide koherentea.✱

IKUSTEKO!



▲AIZKORAN EZ EZIK, SURFEAN ERE MOLDATZEN OTE ZEN?

Joxe Aranburu Aramendi *Keixeta* Urrestillako aizkolari ezagunaren argazkia nikietan serigrafiatu eta salgai jarri du Loreak Mendian arropa-etxeak. Hain zuzen, Keixetaren familiako batek Donibane Garaziko eskaparate batetan egin zuen topo argazkiko manikiarekin. Iragan urriaren 11n bete zen mende erdia aizkolaria hil zela. ✱ **Uztarria**✱



Emakumeen kirola

TXIRRINDULARITZA. Emakumea kirolean asko nabarmentzen ari da azken urteetan, begiratu besterik ez dugu gure ingurura. Mireiak urteak daramatza txirrindularitzan eta haren esanetan, beste herrialde batetan garrantzi handia ematen diote emakumezkoen txirrindularitzari. Atera ditzagun ondorioak eta lagun diezaigun herritar honi eta horei beren helburuak lortzen. Zorte on eta jarraitu lanean!



Argazkilaritza

ALAITZ RUIZ. Ikaragarria da azken urteetan argazkigintzak izan duen bilakaera eta nire inguruko jende askori egiten dio tiradizua gai honek. Ni ez naiz oso aditua eta argazkiak egin zalea ere ez, baina miretsi egiten dut zenbaitek diru asmorik gabe, hau da, *hobbie* moduan egi-



aitor gorrotxategi



‘Lo imposible’

TSUNAMIA. Hainbat pelikulek honek duen oihartzuna balute hobeto funtzionatuko lukete. Ez dut ikusi eta ona ala txarra den ezin esan, baina gaiak zirrara sortzen dit. Denetik entzun dut, baina orokorrean ikusi duten denek famatu didate, beraz, ikustera joan beharko dut.

ten dituzten lanak. Behin baino gehiagotan ikusi ditut beraien lanak erakusketa moduan eta batzutan muntairik gabe zenbait argazki ateratzea posible denik ere... Ez galdu duzun gustua Alaitz, eta jarraitu horrela barkarka nahiz Azpeitiko Argazki elkartearen bitartez.✽

INKESTA

erosketetarako
'tupper'-a
erabiltzen duzu?

 Ainitze Agirrezabala

JEXUS ARTOLA

60 urte



"Oraindik erabili ez dudan arren **tupper**-a jaso dut, eta erabiliko dut.

Jubilatuta nago, 'etxeko-gizona' naiz eta erosketak egitera ontziarekin joango naiz. Guztiok erabili beharko genuke, papera eta plastikoa ez sortzen laguntzen baitu".

HILARIO IBARGUREN

64 urte



"Estreinatu dugu ontzia. Goizean emazteak arraina erosi du Berdura

plazatik eta arrantzaleak esan dio **tupper**-arekin doan lehenbizikoa dela. Ideia oso ona iruditzen zait".

MANUEL AGIRRE

60 urte



"Duela urtebete eskuratu genuen ontzia Kutxan, eta arrandegirako asteen bitan erabiltzen dugu. Harategira bi **tupper** txikirekin joaten naiz. Ea jendeak ohitura onak hartzen dituen".

ANA MARI AMENABAR

56 urte



"Jaso orduko estreinatu nuen arrandegira joanda. Usaina-eta ez egiteko mundiala da, eta neurri egokia du ontziak. Harategira eramaten ere hasiko naiz. Ideia oso txukuna da".*

Diziplina, seme-alabengan



amagoia aizpuru

Oraingo honetan ere hezkuntzaren inguruko hainbat gogoetarekin natakizue. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanean oinarritzen den diziplinari buruzko hausnarketak, hain zuzen ere.

Azpeitiko parkeetan, gurasoen eta seme-alaben arteko erlazioari erreparatuko bagenio, bi minututan aterako genituzke hainbat konklusio. Ez sinestekoa da harreman horren estilo aldaketa. Duela 50 urtekoarekin parekatuz gero, 'txuritik-beltzera' pasatu garelako esan daiteke, edota 'beltzetik-txurira'.

Gure aitona-amonen garaian, oso estilo autoritarioa zuten gurasoek: beldurra, mehatxuak, arrazoi unilateralak... Egun, aldiz, seme-alabei arauak edo mugak jartzeko beldurra, ezintasuna, trebetasun falta... dugu. Mugak eta arauak ezinbestekoak dira seme-alaben hezkuntzan, horiek ematen diote segurtasuna, maitatuak direnaren segurtasuna.

Bai haurtzaroan, baita nerabezaroan ere, pertsona bat noraezean doan 'ardi-galduta'-rekin parekatu

daiteke, eta horiek (seme-alabek) nahi dutena da 'artzainak' gidatzea, nahiz eta arauak ezartzean normala izan beraiek kexatzea. Diziplina ezartzeak ez du esan nahi modu autoritarioan egin behar denik; beste modu batzuk ere badira, diziplina positiboa, esaterako. Haurrari azaldu behar zaio arau batzuk badirela, eta beraien aukera dela horiek betetzea edo ez betetzea, eta ondorioak zein diren.

Diziplina aipatzean, lehen aipatutako estilo autoritarioarekin erlazionatzen dugu. Baina diziplinak ez du zertan negatiboa izan; seme-alaben heziketan ezinbestekoa den osagaia da. Modu egokian ezartzen badira arauak eta mugak, haurrari arduratsua izaten eta modu egokian garatzen laguntzen diogu. Horrez gain, askoz ere babestuagoak sentitzen dira, eta heldutasunera bideratzen laguntzen ditugu.

Beraz, goazen bada, modu egokian, diziplina egoki bat praktikan jartzera gure seme-alabekin!*

galdetzen hasita, datozen gabonetan norbaitek izango al du etxera eramateko aginaldorik herri honetan?  Uztarria

Zein koloretakoa?



miren alcedo

Bizitza deskribatzeko alaiak edo tristea hitzak erabiltzen ditugu sarritan; mundua deskribatzeko justua edo bidegabekoa; baina, batzuetan koloreak erabiltzen ditugu errealitatea definitzeko. Behin, nire lau urteko alabak topo egin zuen Valentziako ume batekin, eta esan zion: "Gure aitite-amamaren herria grisa da; nirea, berriz, berdea. Zer koloretakoa da Valentzia?". Umeak ez zekien zer erantzun; agian, ez zekielako ustelkeriaren kolorea kakarena zenik, nahiz eta hauteskundeetan Valentzia urdinez jantzi; baina, horretaz ere, umeak ez zekien ezer.

Azpeitia berdea zela uste zuen alabak, baina herriaren gainean ke zutabe beltzak ikusten ditugu noizean behin, eta orduan, txapel gris batek estaltzen gaitu. Orain txapel hori desagertzeaz dagoela dirudi, eta pobreziarako lehen urratsa dela esaten digute. Beraz, azken boladan eta horren kontra egiteko, egun batzuetan marea laranja margotzen ditu herriko kaleak —ez nahastu udan gazteek euren go-

zamenerako egiten duten marea arrosarekin—. Aldi berean, hainbat auzokide kale gorrian daude banketxei esker. Funtzionarioen ostiraleko arropa bezain beltza etorkizuna ikustea tentagarria da.

Baina, errespetuan oinarrituz, ikasten ari gara Azpeitia kudeatzen. Herriarren iritzia entzuten da! Benahiz eta prentsa horiak besterik esan, badakigu herria gure gustuz pintatzeko aukera bat dugula.

Horrela, animatzen bagara, margotzeko eta lan egiteko asmoz, Erromako zubiaren kolore guztiak erabil ditzakegu gure kaleak multikolore bihurtzeko. Nahi badugu herria lilaz, gorritz... pinta dezakegu. Eta, ezin dugu ahaztu aro honetan iraultza berdea iraultza gorria bezain inportantea izan daitekeela. Beste gizakiekiko elkartasunak eta ingurumenarekiko errespetuak salba gaitzakela.

Azken finean errealitateari buelta eman behar diogu, eta alabak esan zuen moduan, hau izango da berdearen, itxaropenaren, garaia.*



Teknologia

Ez zara teknologia berrien oso zalea izan inoiz. "Nik ez dut inoiz telefono mugikorrik izango", pentsatzen zenuen, esaten zenuen, zure gizaldiko edo zaharragoko jende pila batek bezala. Gerora ere, erabat demokratizatu, zeharo merkatu eta edozeinek eskuan izaten zuenean ere horixe esaten jarraitu zenuen.

Baina azkenean erosi egin zenuen. Garai hartan hiru lagun bizi zineten pisuan, Gasteizen. Eta halako batean, baten batek proposamena egin zuen: "erosiko al diagu mobila pisurako? Zer ibili behar diagu, bizi guztia

etxera deitzeko gaueko hamarrak arte zain egoten? Gainera, deiak hartzeko bakarrik erabiliko diagu".

Urteak egin zenituzten mobil harekin. Baten batek deia egiten zuenean orri batean apuntatzen zuen zenbat denborakoa zen deia eta gero bakoitzak berea ordaintzen zuen. Horrela egon zineten, Gasteizetik ospa egin zenuen arte. Eta orduan erosi egin zenuen, zeuretzat bakarrik.

Ez zara teknologia berrien oso zalea izan inoiz, eta erresistentzia jartzen diezu askotan. Agian izango da ezagutu zenuelako mundu



||||||| **eñaut frantzesena** |||||

analogiko bat, bestelako mundu bat. Eta agian horregatik kritikatzten dituzu gazteak arrazoirik gabe, egun osoa pantailara begira daudenean, ezagutu duten mundu bakarra pantailaz josita dagoela kontuan hartu gabe. Normala ez dena da zure adineko jendea egotea teknologia hauekin kateatuta, hogei-taka urte zenituztela ezagutu zenituztenean, teknologia berri hauek gabeko mundua ezagutu zenutenean.

Ez zara inoiz teknologia berrien oso zalea izan inoiz, baina Smartphone-a erosi duzu azkenean. Eta poz-pozik zaude.*



Uztarriako komunikazio proiektuko bazkide egin zaitezke, eta horrekin, gure proiektu hau zeure ere egin. Oso erraza da.

izen-abizenak:

helbidea:

enha edo nan zenbakia:

telefonoa:

kontu korrontea:

Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia
e-posta: uztarria@uztarria.com • telefonoa: 943150358

uztarria
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Egonean ez

San Martin egoitza bisitatu du Uztarriak, egoiliarren egunerokotasuna argazkitan jasotzeko. Edadetuak izanagatik, ez dute aspertzeko betarik. 📎📷 A. Agirrezabala



▼ EGUN ON!

Goizeko zortziak aldera jotzen du iratzargailuak egoitzan. Jaiki eta gosaltzera joaterako egoiliarak dutxatu eta apaindu egiten dituzte laguntzaileek. 09:00ak aldera jangelara joaten dira, eguna ondo hasteko indarrak hartzera. Menpekotasunaren arabera, laguntza ematen zaie.



▲ MONTESSORI METODOA.

Estimulazio kognitiboa lantzeko bakoitzaren beharretara egokitutako ariketak egiten dituzte. Argazkian, narridura handia dutenekin eskulanak egiten.

▼ MEDIKUARI BISITA.

Adinekoek anbulatoriora joan beharrik izan gabe, medikuak egunero egiten du bisita egoitzara. Erizainekin batera arduratzen da egoilarren osasun-jarraipena egiteaz.





▲ MOBILIZAZIOAK.

Hainbat egoilar gupil-aulkian egon arren, gorputzaren oreka lantzeko egunero egiten dituzte ariketak. Zutik mantendu, barrari helduta pauso batzuk eman... gorputza ez herdoiltzeko.

► YOGA, BARNEKO BAKEA BILATZEKO.

Arnasketa landu, erlaxazio ariketak eginez bakoitzak norbere barneko lasaitasuna bilatu... Astean behin egiten dute yoga, eta egoilarrek adierazi dutenez, "barneko bakea bilatuta" ateratzen dira saiotik. Argazkian, hainbat adindun yoga egiten, Arantxa Arrillaga terapeutarekin.



▲ SENIDEEN BISITAK.

Ekintzarik ez duten denbora librean, egoilar batzuk euren kasa kalera ateratzen dira paseatzera; euren kabuz atera ezin dutenei, berriz, familiakoak etortzen zaizkie bisitan.



▲ MEMORIA-TALDEA.

Gaitasun kognitiboa –orientazioa, arreta, kontzentrazioa, kalkulua, jarrera– lantzen, Ane Larrañaga terapeutarekin.





▲ **SABELA BETETZEKO, BAZKARIA ETA AFARIA.**

Eguerdiro eta iluntzero jangelan dute hitzordua, bapo jan eta indarrak hartzeko. Lau laguneko mahaiak dituzte antolatuta eta musikaren doinuekin girotuta egiten dituzte otorduak. San Martin egoitzak sukaldea du, eta bertan prestatzen dute sukaldariak jana.

MUSIKATERAPIA.

Musikaren eta instrumentuen bidez erritmoa lantzen dute, ostiralero, Arantxa Arrilagaren batutaren gidaritzapean. Aipatutako ekintza horiez gain, badira beste hainbat ere: bingoa, lorategi-terapia... Argazkian, azaroan egingo duten San Martin asteko emanaldirako entseatzeko.*



Zubiak eraikitzen

Ibaiak gurutzatzeko balio dute. Baina badira bestelakoak ere, ikusezinak. Herrigunea eta inguruko auzoak lotzeko, esaterako. 📌 A. Agirrezabala & J. Frantzesena

Auzo-alkateen figura historikoa izan da Azepeitian. Urteetan, desagertuta ere egon da, salbuespenak salbuespen. Orain, 'Denon Artean' ekimenaren baitan, figura hori berreskuratu dute, garai berrietara egokituta.

Momentuz, bost auzotan izendatu dituzte auzo-batzordeetako ordezkariak, alkateak, alegia. Nolanahi ere, Udalaren asmoa da gainontzeko auzoetara ere zabaltzea ekimena. Aratzerrekako, Lasako, Matxinbentako, Nuarbeko eta Urrestillako auzo-alkateekin egon da guzti horretaz hitz egiteko.

ARATZERREKA

Izen-abizenak. Rosa Buldain. |||Jaio.

Aratzerreka, 1964ko urriak 9. |||Herria.

Aratzerreka. |||Lanbidea. Tabernaria.

Auzoan taldea eta alkatearen figura sortzea "oso ondo hartu" dute, hala dio Buldainen: "hasi gara elkartzen. Gutxi gorabehera bi hilean behin edo biltzen gara. Auzo-alkateen kontuarekin hasi ginenean egin genuen bile-

ra bat, ezagutzeko eta auzoko gauzez hitz egiteko, eta hamar bat lagun juntatzen gara. Lehen banaka joan behar izaten genuen udaletxera, norbere gauzak azaltzera. Ez da gauza bera eskaria banaka edo taldean egitea". Auzotarrek zerbait behar dutenean, beraz, Buldainengana jotzen dute: "orain, auzotarrek zerbait dutenean, badakite nora etorri".

Aratzerrekan hainbat eskari dituzte. "Betitik ari gara eskatzen umeentzako zerbait jartzeari, ez dago-eta ezer. Pilotalekua badago, baina, gainontzean, umeentzako ezer ere ez. Bestalde, auzoan argiteria gainontzeko etxetarraino luzatzea ere eskatzen dugu, eta aparkalekuren bat egiteko modurik balego ere, eskertuko genuke. Auzoan pasadizoa oso estua da, eta hori konpontzeaz zein umeen parkeaz gotzaindegiarekin hitz egin beharko da. Ia zer dioten".

Buldainen aburuz, "garrantzitsua da gainontzeko auzoetako ordezkariarekin harremana izatea. Beharrezkoa da, ondo etorriko da-eta". Lehen ere ba omen zen auzo-alkatearen gisako pertsona bat, eta "auzoan ondo ikus-

ten da orain ere halako bat edukitzea, behintzat akordatu dira inguruko auzoekin ere".

LASAO

Izen-abizenak. Mari Jose Azkue. |||Jaio.

Lasao, 1975eko otsailak 2. |||Herria.

Lasao. |||Lanbidea. Irakaslea.

Lasaoko auzo-alkate Mari Jose Azkuek ere "beharrezkoa" ikusten du alkateak izendatzea, "askotan auzoak herrigunetik aparte gelditzen direlako". Dena den, auzo-alkatea baino, "taldea" direla nabarmendu du: "Bost lagun elkartzen gara motor gisa, baina jende ugari dago laguntzeko prest. Pilak kargatuta eta fresko gaude, gogo dugu gauzak egiteko, baina auzoan dinamika gutxi dago, ez dugu-eta non elkartu".

Hori da lasaotarren eskari "garrantzitsua, beharrezkoena, eta lehentasun gehien duena: biltzeko gunea". Azkuek dioenez, "ja behar dugu biltzeko lekua". Izan ere, "elkar-gunerik ez dugulako egiten ditugu behar baino bilera gutxiago". Ekimen jakin batzuk▶



Matxinbentako, Lasaoko, Aratzerrekako, Urrestillako eta Nuarbeko auzo-alkateak. |||Mailo Oiarzabal

antolatzeko egiten dituzte bilkurak: “festak eta lasaotarren eguna antolatzen ditugu. Ekitaldi oso puntualak. Gutxi. Gutxi, ez dagoelako indar handirik. Hilda dago auzoa”.

Egoera horri buelta ematea dute helburu: “martxan hasi behar dugu, baina horretarako elkartu egin behar dugu, eta toki edukitzea eskatzen du elkarteak. Auzotarrok elkar ikusteko ere balioko du gune horrek, oso banatuta baikaude”.

Elkartzeko tokiaz haratago, Lasaoko sarre-ra “oso arriskutsua da eta desegokia. Hainbatek, gainera, ez dute auzoaren alde batetik bestera pasabiderik. Bidezidor edo bidegorri bat egitea ondo legoke”.

Auzo guztiek dituzte euren beharrak eta kezkak, eta elkarrekin elkartrukatzen dituzte auzoetan jasotakoak-eta bi hilabeteen behin biltzen direnean. Azkueren aburuz, “oso aberatsa da auzo bakoitzeko egoera elkarbanatzea”. Gainera, “ikusten da auzo guztietan berria dela auzo-alkatearen kontua, eta momentuz bakoitza berean ari da”.

MATXINBENTA

Izen-abizenak. Xabier Mujika. |||Jaio.

Azpeitia, 1980ko irailak 19. |||Herria.

Matxinbenta. |||Lanbidea. Udal-langilea.

Matxinbenta hiru udalerritako lurretan kokatzen da, eta mendekotasun hirukoitz horrek auzotarrei “sarritan burukomina eman badie ere”, Azpeitiak, Beasainek eta Ezkio-Itsasok auzoaren gaineko “funtzioak egoki koordinatuta” dituztela adierazi dute. Azken urteetan, Juan eta Iñaki Etxezarreta anaiak izan dira auzoaren eta Beasain eta Azpeitia herrien arteko bitartekari lana egin dutenak, udalerririk horietan EAJ-ko zinegotzi baitziren. Aro berrian, Xabier Mujikak hartu du lekukoa.

Mujikaren esanetan, auzoan “egiteko asko” dago. “Apaiz-etxea jabetza pribatua da orain, eta han zeuden jolas-parkea eta postontziak lekuz aldatzeak du orain lehentasuna. Jolas-parkea pilotalekuko harmailetara lekualdatzea erabaki dugu; postontziak eta zaborrontziak, berriz, frontoi atzera. Era berean, frontoi atzeko aparkalekua egokitu eta herri-gunean abiadura moteltzeko koskak jarri nahi ditugu. Bestalde, auzotarrek umeen eskolarako autobusa ez dugu erabiltzerik, eta lotsagarria da hori; halere hori lortzeko ahalaeginetan ari gara. Auzoaren-sarrera hobetzea ere jasota dugu zerrendan; urtegiko bidegorria auzoraino luzatzea ere bai. Estaldura-ara-zoei soluzioa ematea ere aurreikusten dugu”.

► Auzoan duten ur-saneamendua ere "lotsa-garria" dela dio; "batik bat urtegia hor behean dagoela kontutan izanda. Baserritarrei ganadutegiko urak jasotzea eskatzen zaie, eta bien bitartean, gure etxeetako estoldetako hondakin guztiak erre kara doaz zuzenean. Gutxienez hobi septiko bat egin beharko litzateke hondakinak jasotzeko. Noski, kostu ekonomiko handia eta txikia duten proiektuez ari gara hitz egiten. Erabaki edo gai potoloen kasuan auzo-bilera deitzen dugu. Gainontzean, batzordean hiru lagun gaude, baina oraindik lan-taldea nahikoa airean dago, eta joango gara finkatzen".

NUARBE

Izen-abizenak. Patxi Gurrutxaga. |||Jaio. Nuarbe, 1966ko irailak 29. |||Herria. Nuarbe. |||Lanbidea. Eraikuntzako-langilea.

Matxinbentan ez ezik, Nuarben ere auzo-alkatea izan zuten, garai batean. Kontatzen dutenez, azken auzo-alkatea Ebaristo Gurrutxaga izan zen. Nuarbeko egungo auzo-alkate Jabier Gurrutxaga, ordea, ez da horretaz gogoratzen; hura jaio aurretiko kontua baita hori.

Auzoan hala erabakita, alkate izendapena jaso badu ere, Gurrutxagak garbi du garrantzia ezerk badu, sortu berri den batzordeak duela. "Auzo-alkate figura horrek ez du ezer egiterik atzean lan-talde sendorik ez badu. Gurrutxagaren esanetan, erregularitasunez eta gogoz, gutxienez, bileretara bost bat lagun joatea da "funtzionamendu-egoki baten gakoa. Batzordera betiko bi lagun baino ez badira joaten, segituan nazkatuko

gara. Taldean egin behar da lana, taldean hartu behar dira erabakiak. Batzordea *ghetto* bilakatuko balitz, akabo. Taldeak ahalik eta irekiena behar du izan".

Bederatzi lagun elkartzen dira hilean behin, eta esku-artean badute zeregin franko. "Une honetan arazorik handiena ur-saneamenduarena dugu. Ez da oraingo problema; aspaldikoa, baizik. Ur zikina dugu. Gipuzkoako Urak enpresa ari da ahaleginak egiten. Ur-andela garbitu dute, laginak hartu ere bai, eta edateko ona dela esan digute. Baina, hurrezkerio zikina etorri izan da. Herri-bilera deitu dugu, uraren gaia hitz egiteko, hori baita premiazkoa orain.

Horrez gain, pilotaleku berrian lan batzuk egiteko daude; leku batzutan sarea ez zuten beharaino jarri, eta pilotak ihes egiten du. Muga kontuak ere zuzendu nahi ditugu. Gaur egun ez du zentzurik Nuarben bertan dagoen baserri bat Eizagirre auzokoa izatea. Aparkalekuei dagokienez ere dezente arazoa dugu. Egon badaude proiektu batzuk, baina ekonomia-krisi honekin... Hala, Beizamako Udalarekin ere jarri nahi dugu harremanetan, auzoaren zati bat udalerrir horrena baita.

Garai batean "auzoetan politika ona egin ez, erraztasunik eman ez eta jende asko bizi-tzera kanpora joan izana" ere adierazi du. "Auzoek asko galdu dute horrela". Nolanahi ere, "beste auzo-alkateekin bildu eta esperientziak trukatzeko komisioak baliagarri" direla gaineratu du.

URRESTILLA

Izen-abizenak. Anjel Mari Oiarzabal. |||Jaio. Urrestilla, 1965eko abenduak 29.

|||Herria. Urrestilla. |||Lanbidea. Altzari fabrikako langilea.*

Urrestillako auzo alkatea Angel Mari Oiarzabal da, eta honek ere garbi utzi du auzo-alkateari baino, Urrestillan herri batzordeari eman nahi diotela indarra: "urte askoan ari gara batzordean lanean, eta batzordeari emandako indarra mantetzea da helburua. Auzo-alkateari eman beharrean, taldeari ematea, alegia". ANV alkatetzan zegoela jaso zuten Urrestillan batzordea osatzeko proposamena, eta "batzorde plurala eta kolore anitzekoa" osatu zutela dio. "Batzordearen sorrera irekia izan zen, eta jendea bertaratu zen. Batzuk, ordea, lagatzen joan ziren, baina oraindik martxan jarraitzen dugu".

Urrestillako bizilagunek hainbat eskari dituzte; "garrantzitsuenak" hauek dira: "Orain, umeen parkea plazoletan dago, eta eliza aurrean jarri nahi dugu. Bestalde, kale bat da oinezkotu nahi duguna, baina hori saneamendu-hobiek baldintzatzen dute, eta oinezkoen segurtasunari dagokionez, berriz, Urrestillan sahiesbidea egin zenetik auto gutxiago sartzen da, baina beti sartzen dira, eta abiadura eta zaindu egin behar dira. Horiez gain, epe luzera, ibaiz bestalde etxeak eraikiko dituzte eta han zenbait gauza egitea ere aurreikusten dugu. Guztiek dute lehentasuna. Guk proposatu egiten dugu, baina proiekturik arerratuena haur parkearena da".

Eskari horiez, eta bestelakoez hitz egiteko bizpahiru hilabete behin elkartzen dira urrestildarrak: "gero, ordea, dagoenaren arabera ere egiten ditugu bilerak, eta urtero egiten da batzordean parte-hartu nahi dutenentzat deialdia".*

ERREZILEn SALGAI

Enbargatutako 6 txalet adosatu, estreinatu gabeak. 180 m2, 4 logela, 2 bainugela eta garajea.

Orain 60.000 €-ko beherapenarekin eta konstruktoreak zuen prezioetik 120.000 €-ko jaitsierarekin.

139.995 €-tik hasita - Finantziak %100

INFORMA ZAITEZ
IMANOL 879 117 116

Luba
aholkularitza

Aholkularitza:
Fiskala
Laborala
kontablea

Gestori lanak

Finken administrazioa
Gestio inmobiliarioa

Tlf: 943 157 525 Faxa: 943 157 275
Imperan kalea, 43 • luba.ase@euskaltel.net

KIRURI

JATETXE

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa: 943 81 56 08

Faxa: 943 15 03 62

Auzoak indartzeko lanean

Auzoen eta Udalaren arteko zubi-lana egiteko alkatearen figura bost auzotan finkatu badute ere, Udalaren helburua da gainontzekoetara ere zabaltzea egitasmoa.  Ainitze Agirrezabala

Geografikoki herritik bakar-tuak dauden auzo txikiei bizirik eusteko lan asko egin behar dela, ondo asko daki hori Ainhoa Beristain Udaleko Euskara batzordeburuak. Elosun bizi da, hangoa baita izatez, eta azken sei urtetan auzo-alkatea izan da.

Herrigunetik aparte kokatutako auzoetan figura hori izatea “oso beharrezkoa” dela dio. “Bergarako auzoetan beti izan dira auzo-alkateak, eta askoz ere hobeto funtzionatzen dute gauzek. Auzo bezala auzotarrek gauzak eskatzen ez badituzte, Udalak ez dizu ezer ere emango. Nik hori bizi izan dut,

eta Azpeitian Udal hauteskunde-tarako programa osatzean hori jaso genuen”.

Denon Artean ekimenaren baitan auzoetan egindako bileretan esaten ziguten “abandonu eta utzikeria sentsazioa” zutela; dena herrian egiten zela; auzoetan ezer ere ez. Auzoan zer behar dituzten auzotarrek beraiek dakite ondoena eta alkate-figura hori araututa, Udaletik gertuago sentitzen dira, pisu gehiago izango dutelako. Eskaerak egingo dituzte, erantzunak eman beharko zaizkie, eta azkenean, jarraipen bat izango du horrek. Bi hilean behin, bost auzo-alkateak eta alderdi politiko-etako ordezkariak komisio bate-

tan elkartuko gara eta bertan auzoetatik egindako eskariak errepasatu eta gainbegiratuko ditugu, zer egin den, zer ez den egin... Era berean, garrantzitsua da oso auzoek hartu-emanak indartzea, elkarren beharrak ezagutzea eta esperientziak trukatzeko. Auzotik egindako ekarpenak gauzatzeko garaian, Udalari presioa egiteko bidea ere ematen du horrek guztiak. Modu horretan, auzotar bezala baloratuta sentitzen dira, kontutan hartuak izan direla eta balorazio positiboa egiten dugu eta auzoak ere kristoren gustura daude figura hori jarrita”.

Auzoak “egoera txarrean” daude, Beristainen esanetan.

“Urrestilla egongo da ondoena, handiagoa ere bada eta jende gehiago bizi da, baina gainontzekoak nahiko triste daude. Haien eskaeretan erreparatu, eta beharrezkoa baino ez dute eskatzen, eta gure helburua da auzoek guxtienekoa izatea”.

Xedea, figura zabaltzea

Azpeitian bederatzi auzo daude, eta horietan guztira 1.635 biztanle bizi da. Auzo-alkatearen figura izendatzen aitzindariak Matxinbenta, Lasao, Aratzerreka, Urrestilla eta Nuarbe auzoak izan dira, baina Udalaren asmoa egitasmoa gainontzeko auzo guztietara zabaltzea da. “Hasiera batean, gure helburua da herritik aparte dauden auzo guztietan izendatzea auzo-alkateak. Sanjuandegin, esaterako, ez da izendatu, herri barruan dagoen auzoa delako, eta auzo horren beharrak eta herritik bakartuta daudenak oso-oso desberdinak dira. Bost auzo horiek lanean nola ari diren ikusita, gainontzeko auzoek ere egitasmoan parte hartu nahiko dutela uste dugu. Loiolan, adibidez, hortxe-hortxe ibili ziren... nahiz eta azkenean osatu ez”.

Gazteek auzoetatik alde egin eta horiek hustearen arrazoa “baliabiderik eza” dela gaineratu du. Joera horiekin bukatze aldera, “auzoak indartu eta horiei bizia ematea” lortu nahi du Udalak egitasmoarekin.✱



Ainhoa Beristain Udaleko Euskara batzordeburua.  Ainitze Agirrezabala

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40

arte eta diseinu ikastegia

di-o

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

Kamera itzali gabe

Loiolabideko denda itxita 32 urteko ibilbide profesionalari amaiera eman arren, argazkigintzari lotuta jarraitzen du Agustin Arenasek. 📌 Monika Juaristi

Argazkigintzari lotutako bizitza eraman du Agustin Arenasek gaztetatik. 14 urterekin ekin zion argazkiak egiteari. Pello Arenas lehengusuak pasatutako liburu batzuk irakurri, eta hala jakin zuen berea argazkigintza zela: “Uda zen, eta ni oso aspertuta nengoen. Pellok liburuak pasatu zizkidan, eta sekulako interesarekin irakurri nituen. Gustatu egiten zitzaidala ikusi nuen”.

Zerotik hasi zen azpeitiarra. Bere interesak eraman zuen duen formakuntza izatera.

“1980-1981 alderako, ekipo profesional bat nuen, formatu erdiko kamara bat, zegoen onena. Horrekin hasi nintzen lanean, errepor-tajeak eta estudioko lanak egiten”.

Soldaduzkatik bueltan pisu bat hartu eta argazkigintzari gogotsu heldu zion. “Estudio oso txiki bat eta laborategitxo bat ipini nituen. Han urtebetez edo egon nintzen, eta lehen kontaktuak egiten hasi nintzen hornitzaileekin. Martxa hartzen hasi nintzenean, eta pixkanaka bezeroak etortzen hasi zirenean, jen-



|||DATUAK|||||

|||Jaio. 1958ko urtarrilak 30.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizi

tokia. Azpeitia. |||Lanbidea.

Momentu honetan langabezian badago ere, argazkigintzari estuki lotuta dago.



Kakalardoa hegan. |||Agustin Arenas

dea hobeto hartzeko lekua behar nuela pentsatu, eta 1982an, Loiola Biden lehen denda ireki nuen". Lokal txiki batean hasi zen Arenas herriaren eskaerak betetzen: "40 metro kartratutan jarri nituen denda, estudioa, laborategia eta komuna. Neuk ere ez dakit nola egin nuen! Gorputz osoko argazki bat ateratzeko lokaletik kalera irten behar izaten nuen". Han 13 urtez egon ziren Agustin eta Mari Karmen anai-arrebak. Negozioa bide onetik zioan, eta garai hartan, Arenasek ez zuen inoiz pentsatuko argazkigintzan lana faltako zenik, eta horregatik, 1995ean, lokal handiago batera aldatzeko erabakia hartu zuten.

Mota guztietako lanak egin izan ditu argazkilariak bere bizitza profesionalen: "Globo batera igo eta paisaien argazkiak, udaletarako turismo liburuxkaren bat, lehen jaunartzetako argazkiak, ezkontza-erreportajeak, karneterako argazkiak... Edozein lan egiten genuen, eta uste dut hori dela argazkilari on batek egin behar duena: edozein eremutan argazkiak ateratzeko gai izan". Garai ederra zen hura anai-arrebentzat: "Sekula ez gara lan bila aritu; lana etorri egin izan zaigu. Publizitate oso gutxi egin izan dut. Enkarguak etorri ahala egiten nituen, eta beti nahiko lan izaten nuen. Publizitaterik onena lana ondo egitea zen, eta bezeroak beste bati komentatzea; ahoz-ahokoa zen publizitaterik onena".

Analogikotik digitalera

"Aldaketa izugarria izan zen. Argazkilari askoren bukaera ekarri zuen, eta argazkigintza negozioa deuseztatzea eraman duen arrazoi nagusia izan zen", azpimarratu du. "Bapatean sekulako aldaketak egitera behartu gintuzten: mentalki, teknologikoki, eta baita ekonomikoki ere".

Internetik eta mugikorrik gabeko garaian, oso zaila zen informazioa lortzea. "Argazkilari gehienok autodidaktak izan gara, nire adin ingurukoak, behintzat. Gaztea nintzenean, informazio falta zen arazo nagusia. Gabezia horrek ezjakintasun izugarria eragiten zuen". Jende askok ez zuen jakintza teorikorik, eta digitalaren aroa etorri zenean, oso nabarmen geratu zen batzuk ez zeudela prestatuta argazkilari izateko, formazio gutxi zutelako. Guzti horiek desagertu egin ziren.

Digitalaren aro berriak goitik behera aldatu zuen lan funtzionamendua. "Kolpera, argazkilari soilak izatetik argazkilari, laborategiko langile, maketatzaile, diseinatzaile eta editore izatera pasatu ginen. Guzti hori gauetiki egunera ikasi behar izan genuen eta aldapa gora egin zitzaigun. Jaunartzeko argazkiak

negatiboekin egitetik digitalean egitera pasatu ginen kanpaina berean".

Ekonomia aldetik ere aldaketa handiak eragin zituen aurrerapen teknologikoak: "Lehiatzeko moduko ekipoa behar genuen, kategoriakoa. Diru mordoan inbertitu behar zen ekipa berria erosteko (kamerak, objektiboak, tonerrak, pantailak, irudi asko prozesatzeko ordenagailu azkarrak...), eta jakinaren gain, bost urte beranduago berriro aldatu behar harko zela". Guzti horrek euren zerbitzuak garestitzea eragin zuen. "Guk hori kostuetan islatu behar genuen, eta behartuta ikusi ginen gure lana gehiago kobratzera. Ondorioz, eskaerak kamera digital bat zuen inguruko edonori egiten hasi zen jendea, horrela lanak merkeago lortzeko. Guzti horrek ekarri zuen argazkigintza profesionalaren gainbehera".



Okila. ■■■ Agustin Arenas

Guzti horrek, urte askoren ostean, Arenas argazki dendaren ateak ixtera eraman zuen Agustin: "Ez da arrazoi bakarra egon. Azkenetan, sektoreko krisia zela eta, lanak bakan-tzen joan ziren, eta dagoeneko negozioa ez zen errentagarria; hori izan zen denda itxeko arrazoi nagusia. Krisi orokorraren eraginak ere nabarmentzen genituen. Eta azken arrazoi moduan, krisi pertsonala zegoen: 32 urte pasatu nituen lan bera egiten eta azkenean, aldatzeko ordua zela erabaki nuen".

Bere negozioarekin gertatu dena esparru zabalean gerta daitekeela uste du; argazkigintza negozio moduan desagertzea, alegia: "Digitalaren demokratizazioarekin argazkilari guztiak berdinak izatera pasatu gara. Gazteek irudiaren aurrean ez dute apreziatzeko lehengo gaitasuna. Irudi baten xarma, duen lana, edertasuna, kostatu dena... Ez dakite guzti hori apreziatzen. Lehen beste kultura bat zegoen: beste irizpide batzuk zeuden eta beste balorazio bat zegoen. Hori baloratzeari uzten zaion unean, argazkilari profesionalak lekuri ez izatera pasatzen gara. Uste dut gure ofizioa abarketariena edo saskigileena bezala pikutara doala".

Betirako argazkilari

"Orain, ofizialki, langabezia dago Arenas, baina argazkigintzari oso lotuta jarraitzen du. "Betiko *hobbi*-a izan da eta argazkiak ateratzen jarraituko dut ahal dudan artean". Mundu profesionalen egin ezin zituen lanetan murgilduta dabil: "Niri gertatu zait nire argazkigintza gustukoena zela hain justu nire lanean egiten ez nuen. 14 urterekin hasi nintzen argazkiak ateratzen paisaiei, tximeletei, txoriei, loreei... eta hori zen gustuko nuen, natura-argazkigintza. Horrekin, ordea, ez zen dirurik sartzen. Orain, gustuko lanak egiten nabil. Alde horretatik, behintzat, ondo etorri zait".

Betirako argazkilaria izango da Agustin Arenas: "Egitea utzi ezin dudana gauza bat da; nik ez dut imajinatzen nire bizia argazkigintza gabe. Denbora bat kamera ukitu gabe egoten banaiz gaixotu egiten naiz". ✨

■■■ "Argazkilari guztiak berdinak izatera pasatu gara digitalaren demokratizazioarekin"

AGUSTIN ARENAS

argazkilaria



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua


- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze eizmendi|||

Udazkeneko sentsazioak

Alaitz. Ordu erdi gauden eserita zerri buruz idatzi pentsatzen... Urte bete pasatu dinagu hileru gure atala zintzo betetzen, eta hi, ez zaigula ezer okurrituko! Udazkenarekin batera itzali gaitun gu ere...

Gurutze. Udazkenak badin nirekiko eragina. Paisaia dotorea ikusteko aukera eta hego haizea gustuko dizkinat, baina ordu aldaketa eta hostoekin batera ilea erortzea batere ez.

Alaitz. Joer! Ordu aldaketarena jasanezina egiten zaidan... Akordatzerako gaua, hi! Sekulako tristura sartzen zaidan, etxean gertzeko gogoa, ezer ez egitekoa...

Gurutze. Aiiii! Hau dun hau panorama. Pozik gauden itxura eman behar eta etxetik atera egin behar... Konturatzen al haiz "udazken" hitza aipatu eta, gero eta etzanago gaudela? Ez al daukan hitz "magikorik" pixka bat alaitzeko? Seguru baietz. Bota!

Alaitz. Udazkenarekin lotuta... babarrunak.

Gurutze. Ederrak ditun, baina haizea buruan hobe tripan baino! Beste hitz bat!

Alaitz. Bale, beste bat... Nahi badun hiztegia aterako dinat... Ea... pijama.

Gurutze. Udazkenean bakarrik janzen al dun pijama? Nik urte guztian. Beno, beno... Pentsatu ezan pixka bat gehiago...

Alaitz. Bai, ze pijamarena erantzuteko asmorik ez dinat. "Alkantarilla".

Gurutze. "Alkantarilla?" Zer ikusi beharra zeukan udazkena alaitzearekin? Hor, arratoiak eta zikinkeria besterik ez zagon!

Alaitz. Hara, ahaztu ezan! Hitza eskatu eta eskatu ari haiz, eta frogan jarri nahi hindudan... Aspermenari edo tristeziari aurre egiteko helburuak jarri behar zizkionagu gure buruari; zerbait agindu heure buruari, epeak ezarri zerbait egiteko... Ene, ezer ez da festa!

|||GURUTZE. "Festan gaudela tristura ahazten zaigun. Horixe zunan hitz magikoa"

|||ALAITZ. "Ez hunan ba zaila! Akaso, festa egiteko premian nagoelako dun"

Gurutze. Esan dunana ez zagon gaizki, baina bukaera gehiago gustatu zaidan, festarena. Festan gaudenean tristura ahazten zaigun. Aaaaa... Horixe zunan hitz magikoa!

Alaitz. Igoal bai. Ez zunan ba zaila! Akaso, festa egiteko premian nagoelako izango dun, horrexegatik ezin hitz magikoa topatu... Hurrengo ofizialak Santo Tomasak, ezta?

Gurutze. Santo Tomas aipatuta, datorren hilerako gaia etorri zaidan. "Top secret".

Alaitz. Zeeeee? Gaurkoa ezin bukatu eta datorren hilekoa bururatu al zain? Hik daukan meritua hik... Ondo apuntatu, e?

Gurutze. Hi lasai, ideia ona bururatu zaidan eta. Gora udazkena. Aio!!

Alaitz. Bai, gora udazkena eta gora gu.*



Hiru hamarkada agertokian

Helduentzako zazpi antzerki-emanaldi; familia osoarentzako hiru obra; mahai-inguru bat, poltsikoko lan alternatibo bat, eta hamaika eskola-antzerki ikusteko parada izango da aurtengoan. 📌 A. Agirrezabala

Aurten urteurren borobila betetzen dute Euskal Antzerki Topaketek, eta data berezia ospatzeko asmoz, hainbat estreinaldi dituen programa osatu da, herri-tarrek zein kanpotarrek gozatzek.

Azaroaren 2an emango zaio irekiera aurtengo edizioari eta hirlaren 18a bitartean, talde profesional eta amateurrek euskarazko hainbat obra eskainiko dituzte. Nabarmentzekoak dira Artedramaren *Publikoari gorroto* lana, lehenbiziko egunean, eta azaroaren 9an Glu-Glu konpainiaren *Sutxikian* obraren estreinaldiak.

Antzerki profesionalaren artean, herriko emakume taldeak ('Bai nahi dut'. Hilak 17, 21:30) eta beste talde amateurrek euren tarteak izango dute. Hala, antzerki amateurren zuzendutako asteburua antolatuko dute, azaroaren

|||DATUAK|||

III Zer. XXX. Euskal Antzerki
Topaketak. III Eguna.
Azaroaren 2tik 18ra.

|||Tokia. Udaletxeko ganbaila-kupula gela, Soreasu, Sanagustin eta gaztetxea. **|||Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.

15etik 18ra; ikastetxeei eskaini-
tako obrak ere izango dira, 12tik
15era.

Horrez gain, Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak mahai-ingurua antolatu du, hilaren 10ean, eguerdiko 12:30ean. Patxo Telleria, Esther Uria, Gabriel Aresti eta Mikel Martinez 'Euskal teatro berri baten beharra: euskal komedia' gaiaz ariko dira.✴

XXX. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

2 **estreinaldi.** Artedramaren 'Publikoari gorroto' eta Glu-Glu konpainiaren 'Su Txikian' lanak, hilaren 2an eta 9an, hurrenez hurren.

5 euro sarrera. Helduek antzerki-obra bat ikusteko ordaindu beharreko kopurua; umeak 2 euro ordainduta sartu ahalko dira.✱



Gabriel Ocina (A. Otegi), Ugaitz Alegria (I. Urkullu) eta Martxelo Rubio (J. J. Imaz) *Su txikian* obran. **J. C. Ruiz (AP)**

|||BESTERIK|||

1 Sanmartinak Errebalean

Txistulariekin hasiko dituzte festak (11:00). Bazkalostean, 15:00etan hasita, ume-jolasak eta txokolatada izango dira; gero, sokamuturra (16:30) eta gauean, afaria. Lasaon ere ospatuko dituzte Sanmartinak.

||| **Eguna.** Azaroak 10 (zapatua).

||| **Ordua.** Egun osoan. ||| **Tokia.**
Bustinzuriko Errebala.

2 VII. Ardoaren Eguna

Ardo Dastaketa Eguna antolatuko dute zazpigarrenez. Ardogileek hainbat postu jarriko dituzte, 20 upategi inguru, eta horiez gain, herriko gaztagileen eta Gernikako piperren postuak ere jarriko dituzte. Bost euroren trukean kopa huts bat eta 5 ardo hartzeko txartelak emango dira.

■ **Eguna.** Azaroak 17. ■ **Ordua.** 11:30etik 14:30era. ■ **Tokia.** Plaza. ■ **Antolatzailea.** Udala.

3 Xixiliren omenez

Azaroaren 22an Musikariari Eguna dela eta, Udal Musika bandak kontzertua eskainiko du (12:30), hilaren 18an. Azaroaren 21ean, berriz, Juan Antxieta Musika Eskolaren ekitaldiarekin goatzeko parada izango da (19:00), eta 23an, Donostiako Goratzar Abesbatzak eta Julian Barrenetxeak emanaldia eskainiko dute.

|||**Eguna.** Azaroak 18, 21 eta 23
(igandea, asteazkena eta
ostirala). |||**Tokia.** Sanagustin.✱

|||Azpeitiko ekimenez informazio
gehiago: uztarria.com/agenda



Tuko

Laguntek, S.L.

Harzubia hiribidea 51
Telf : 943 15 14 41
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

- ⇒ Helduei egokitutako altzariak
- ⇒ Ebakuntza ondorengorako laguntzak
- ⇒ Suaren aurkako arropak
- ⇒ Ohe artikulatetan aukera zabala
- ⇒ Bainugelarako artikulua
Aulkiak, heldulekuak...
- ⇒ Gurpil-aulkiak
Sendoak, biltzen direnak, seguruak, elektrikoak...
- ⇒ Eskaren aurkako materialeak
Koltxoi eta kuxin hauek babesa eskaintzen dute
eskarak garatzeko arriskua dutenentzat
- ⇒ Garabiak
Erabiltzailearen eta zaintzailearen segurtasuna
eta erosotasuna bermatuz.



Etxean ariketak egiteko
aparailu bereziak

Masaia hartzeko eta
ariketak egiteko aparailuak

Denboraldi berriko
oinetako erosoak

HITZ GEZIDUNAK

	Ukapena, ukoa	▼		Oso bihurriak	▼		Oinazea	▼		Espainiera	▼		Txingor
	Adierazpen matematikoak			Oinarrizko edaria			Padera			Intsektu mota			
	▶			▼			▼			▼			▼
	Astoak egiten du	▶											
	Ingala-terako												
Ez hotz, ez bero	▼		*	▶	▼								
Jarri			Ilargiaren goraldia										
▶			▼			Kanpo	▶			Korrikaren antolatzaile	▶		
						Iodoa				Röntgen			
Gipuzkoako herria	▶					▼				▼	Musika nota	▶	
Barrundiako kontzejua											50		
▶						Zilarra	▶			Sindikatu abertzalea	▶	▼	
						Bokala				Bokala			
Lilia	Alkoholaren bukaera	▶			Kontinente bat	▶	▼			▼	Sodioa	▶	
	Osmioa				Landa						Gar		
▶	▼				▼	Non atzizkia	▶			Titulu ingeles	▶	▼	
						Bokala				Tona, labur-labur			
Sastatua, arma zuri batez ol-dartua	▶					▼				▼			●

* Azpeitiko pilotalekua

Egilea:
Luma

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan Azpeitiarekin muga egiten duten udalerrien izenak



H	I	B	E	T	Z	B	A	T	R	I	P
L	O	D	A	M	U	E	S	O	N	O	E
A	P	A	Z	K	O	I	T	I	A	Z	R
R	T	I	E	U	L	Z	A	U	K	I	R
O	Z	O	K	A	M	A	Z	I	E	B	E
N	A	B	O	I	T	A	O	I	G	E	Z
E	D	Z	N	O	Z	I	R	E	R	N	A
H	A	B	E	D	T	N	G	R	A	T	N
I	S	E	D	S	E	O	E	I	A	S	T
T	U	A	A	X	T	Z	U	L	K	G	Z
E	A	S	O	D	I	O	P	U	R	D	A
H	O	A	R	L	A	Z	A	H	O	I	K
N	L	I	E	I	P	I	D	I	L	M	O
K	U	N	U	K	E	T	A	Z	N	E	I

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

●	A	U	T	A	K	A	T	S	A	S	●
R	I	S	●	N	A	●	A	E	R	O	L
A	N	●	A	I	S	A	●	L	O	●	
B	A	L	●	G	A	●	A	E	G	L	E
A	L	●	R	A	B	I	O	G	L	E	●
K	A	●	T	A	●	I	N	I	P	I	
Z	T	I	A	R	A	R	A	Z	I	●	E
A	Z	T	N	A	R	A	R	A	●		
K	A	●	O	Z	A	U	K	E			
●	G	●	M	●	B	●	U	●			

HIZKI ZOPA

I	E	N	Z	A	T	K	E	U	N	K	
O	M	L	I	P	I	D	I	L	N		
K	I	H	O	I	A	R	A	O	H		
A	D	A	P	O	R	D	A	S	O		
Z	G	X	T	A	A	T	U	A			
A	S	T	I	S	E	D	S	E			
N	T	A	G	R	A	T	N	A	B	E	
A	N	A	R	N	A	Z	N	O	Z	I	
Z	E	B	O	I	T	A	O	I	G	E	
E	B	E	A	M	A	Z	I	E	B		
R	I	E	L	Z	A	U	K	I	R		
A	P	A	K	O	I	T	A	Z	A		
E	O	N	O	S	E	O	N	O			
L	O	D	A	M	U	E	S	O	N	O	
H	I	B	E	T	Z	B	A	T	R	I	

ZEIN DA?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEN EPEA. Azaroak 19 (astelehena) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behe. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN URRIKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZEIN DA?



KEPA SUSPERREGI ERRETOREA



IRABAZLEA



Kontxi Imaz Amenabar Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 143. irabazlea. Odriozola upategiko ardo-sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Kontxi Imaz, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od
rio
z
ola

Agirretarren argazkiak

Euskalkiei eta memoriari buruzko 'Nire argazkia' lana estreinatu dute. Azpeitia, hemengo euskalkia eta Agirre familia tartean dira; hiru belaunaldi, hiru argazki, hiru historia eta hiru istorio.  Uztarria

Euskalkiei eta memoriari buruzko *Nire argazkia* dokumentala egin dute Jokin Etxeberria eta Benjamin Duinat lapurtarrek. Hiru herrialde, hiru herri, hiru euskalki eta hiru familia hartu dituzte lane-rako, eta Azpeitia, hemengo euskalkia eta Agirre familia tartean dira; familiako hiru belaunaldi eta beste horrenbeste argazki, beren istorioak eta historia arilkatzeko.

Ane Agirrek Uztarriari azaldu dioenez, "proiektuan parte hartzen duenetako bat nire anaiaren laguna da, eta anaiaren bidez gure amama, gurasoak eta ni sartu ginen proiektuan". Dokumentalean, Carmen Eizmendik –amama–, Pello Agirrek eta Mertxe Egibarrek –gurasoek– eta Ane Agirrek berak familiako ar-

|||Belaunaldi batetik bestera euskalkiek duten eboluzioa ere azaldu nahi dute



gazki bana aukeratu eta hari buruz hitz egingo dute. Belaunaldi bakoitzak bere aldetik egin ditu grabazioak. Euskalkiek belaunaldi batetik bestera duten eboluzioa ere azaldu nahi dute egileek.

Argazkiek ere badute, noski, pisua, izenburutik hasita. Agirretarrek oraindik ez dute ikusi dokumentala. "Nik ez dakit amamak eta gurasoek zer argazki erabili zituzten. Kontua da, argazkiek balio dutela familia bera lotzeko; eta aitzakia ere badira, zuk zerbaiti buruz hitz egiteko. Familiako argazkietatik abiatuta, istorioak lotzea da egin dutena".

Urriaren 24an Bilbon aurkeztu ondoren, Euskal Herrian zehar zabaldurik nahi dute dokumentala, 2013an ETBn eman aurretik.✱

|||EFEMERIDEAK|||

1559

Inork sagardoa saltzen jarri nahi ez. Herrian 11 lagunek bazutela jakin eta txandatu, binaka, saltzen jartzeko agindu zuten. Haienak bukatu arte ezin zitzaien ondorengoei erosi.

1575

Txerriak inolako ordenarik gabe hazten ziren etxeetan. Osasunean eragin zezakeela eta, abenduaren 8rako txerri guztiak hiltzeko agindua eman zuten.

1847

Urrestillari herria sortzeko agindua eman. Elosiaga eta Nuarberekin bat eginik. Aratz-errekak eta Matxinbentak bat eginik segiko zuten Azpeitiarekin.

 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.✱

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkestak |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



Enbolia

Odol-basoengan, zain eta arteriengan, eragiten duen gaixotasuna da. Odol-baso horietan odolak eramaten duen substantzia da; ez da desegiten eta, azkenean, tapoiaren lana egin eta odolaren falta nabaritzen den lekuetan eragiten du. Enbolo hori solidoa, odol-koaguloa, ere izan daiteke.

Eragindako gorputz-gunea hil edo biziko organoa ez bada, edo odol-sare zabala badu, ondorioak oso txikiak dira; baina, gorputz erdiaren paralisia edo hemiplegia ere sor dezake, baita larrialdi handiak ere, pertsonaren bizitza arriskuan jarritz. Enbolia gertatu bezain azkar hospitalera joan behar da.

Gehienetan, arrazoi nagusia, odola azkarregi koagulatzen delako izaten da; baina sendagileen esperientziak, beharbada, ebakuntza baten ondoren gaixoa gutxi mugitzearen ondorioz. Likidazioen zirkulazioa moteldu egiten da, eta ohean etzanda gainbehera dauden gorputzgunean, pelbia, sabelpea eta izarren hasiera direnez, horietan daude baldintza egokienak enboliak eragina izateko. Ni neu beti saiatu naiz kirurgiaz tratatutako gaixoak lehenbailehen mugiarazten.

Gaur egun, hori sahiesteko botika egokiak daude, baina ez dezagun ahaztu botikarik onena ariketa fisikoa egitea dela.*

||||||| **julian bereziartua** |||||



VERONICA GALLARIN webgune-diseinatzailea



1. Webgune on baten ezaugarriak...

Nabigatzeko erraza eta diseinu erakargarria izatea.

2. Zer garrantzia du?

Negozioa ezagutzera emateko tresna ona da.

3. Gustuko duzun atari bat?

Inditexen edozein.

5. Lanik aipagarrienak?

Olazal hotela, Pastorkua, Uranga, Iraurgi Cup...

6. Ez duzu aholkatzen...

Nekatu egiten du kolore gehiegik, fosforeszenteek. Nabigatzen jarraitzena gonbidatu behar du atariak.

7. Zenbat kostatzen da?

Testua erredaktatu, argazkiak atera... Bezeroen beharretara egokitzen gara. Ondoren, eguneratu ere egiten ditugu.

8. Diseinatzailea ez bazina?

Haur-eskolako begiralea.*
Ainitze Agirrezabala

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK
Jose de Arretxe, 17 Tel. 943-810664 AZPEITIA
Ibai Ondo, 28 Tel. 943-850445 AZKOITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

DI-DA diseinua
zure lorategi edo terrazara diseinua
90€ren truke
www.kimubat.com

Kimubat

SEGUROS BILBAO | Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:
-ETXE ASEGURUAK
-AUTO ASEGURUAK
-DENDA ASEGURUAK
-BIZITZA ASEGURUAK eta abar.

AURREZKIENTZAT PRODUKTU INTERESGARRIAK

Joxe Migel Muguruza
(Urola Erdirako agente eskusiboa)
Telf: 652.776.909
jm.muguruza@segurosbilbao.com

Lana, bizimodu

Albaitari, hedabideetako kolaboratzaile, euskaltzale, idazle, antzerki zuzendari, aita, attitte... denetarik izateko beta izan eta hartu zuen Zurutuzak. 📌 Uztarria



1. Albaitaritzako ikaslea zela ateratako argazkia, 1935ean. **2.** 'Voz de Guipuzcoa' irratiko lantaldea, 1979an. **3.** Gerra Zibila, 1938an, Artesan.



Maria Dolores Odriozola emaztearekin, 1960an, Larraitzen ospatu zen ezkontza batetan ateratako argazkia.

Lana, lana eta lana. Horrexek definitzen du ondoen Enrike Zurutuza. Gerra Zibilean frontera joan eta armarik hartu nahi ez zuelako, Franco diktadorearen tropekin bat egin, eta han hasi zuen bere albaitari ibilbidea (aurretik ikasketak egiten ari bazen ere). 19 urte izango zituen. 70 urte beteta hartu zuen erretiroa, eta tarteko urte guztietan albaitaritzaz izango zuen lanbide eta bizimodu. Langile nekaezina izan zen Enrike Zurutuza, eta bizitako 92 urteek askorako eman zitoten.

Enrike Zurutuzarena da Uztarria Komunikazio Taldeak 2009. urteko martxoan abiarazi zuen liburuxka biografikoen bildumako bederatzigarren zenbakia. Julian Bereziartua medikuarena izan zen lehena, Leo Etxeberria sindikalista eta euskaltzalearena bigarrena, Valentina Agirre emaginarena hirugarrena, Santi Lazkano txirrindulari ohiaarena laugarrena, Amaia Garmendia gitarra eta animalistarena bosgarrena, Enkarna Arregi mojarrena seigarrena, Iñaki Bergara 'Pio' aktorearena zazpigarrena eta Komando Autonomo Antikapitalistako kide Bernardo Aizpitarte *Kabrena* zortzigarrena.

Uztarria Komunikazio Taldearen liburuxka biografikoen ale berria, Enrike Zurutuza azpeitiartutako ataundarraren bizitzako hainbat pasarte eta kontakizunekin osatu du. Ihintza Agirretxe kazetariak idatzi du, eta azaroaren 17an, 12:00etan Baigeran aurkeztuko da. Aurrerapen txiki bat da jarraian irakurri dezakezuna.

Ataungo azpeitiarra

1917ko uztailaren 14an, Ataungo Añiñandui baserrian jaioetako azpeitiarra da Enrike Zurutuza. Entzuna dut, beste gizaki guztiak jaioetako lekukoak izaten direla, baina azpeitiarrek beraiek hautatzen dutela non jaio. Zurutuzak, Ataungo Añiñandui baserrian jaioetza erabaki zuen.

Izaera handiko etxea eta auzoa zirela zioen berak, eta bera ere ez zen nolanahikoa izan. Enrike ere izaera handiko gizona izan baitzen; hori diote, behintzat, bera ezagutzeko aukera izan zuten guztiek.

Añiñandui baserriko maiorazkoa zen Enrike, seme bakarra baitzen (arriba zaharragoa zuen). Hala ere, baserria utzi eta beste zeregin batzuei ekin zion. Nahiz eta bizitza osoan

LIBURUXKA

DATUAK.

Orrialdeak. 73.

Neurriak. 10 x 8 zentimetro.

Tirada. 1.200 ale.

Prezioa. 5 euro (Uztarriaren bazkideek doan jasoko dute).

21. PRODUKTUA.

Aurreko 19 liburukak. *Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias, Patxi Altuna, Azpeitiko efemerideak, Euskarazko prentsa eta Azpeitia, Azpeitiko mendi gida, Loiolarik ez balitz, Otsobeltz, Urrestillako musika taldeak, Azpeitiarrak Espainiako Gerran, Oroitarri, Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Xanti Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara 'Pio' eta Bernardo Aizpitarte 'Kabra'.*

CDa. *Urolaldeko bertso zaharrak.*

baserri munduarekin lotuko zuen zilbor-hes-tea ez zuen etengo. (...)

Gerra Zibilean boluntario

Albaitaritzaz ikasketak bukatzeko pare bat urte falta zitzaizkiola, uda pasatzera etxera etorria zela, Espainiako Gerra Zibila lehertu zen. 1936ko uztaila zen, eta 19 urte zituen. Ataun Nafarroako mugan dago, eta Nafarroatik segituan sartu ziren erreketek herrira; Santio Egunean, hain zuzen, eta Enrike plazan zen. Han ikusi zuen herriko bikarioak nola eman zizkion herriko giltzak erreketen jeneralari, eta nola esan zion alkatea alde egina zela.

Gerra hasi eta segituan hasi ziren kintak soldadu deitu eta gerrara eramaten. Lehenengo 36koak, sei bat hilabetera 37koak... Zurutuza 38koa zen, eta deitu aurretik, militarren aurrean boluntario agertu zen. Boluntarioek zertan aritu aukeratzeko modua izaten zuten, eta hark albaitari izateko aurkeztu zuen bere burua. Albaitariak falta zituzten, eta onartu egin zuten. Zurutuzak kontatzen zuenez, ez zuen frontera joan nahi, eta bolondres aurkeztuta saihestu zuen.

Patua zer den, Azpeitian sartu zen albaitariaren taldean. Hemendik Burgosko (Espainia) kuarter nagusira bidali zuten. Han ganadutegi batean zaldi eta mandoak osatzen aritu zen. Tartean, Franco jeneralaren zaldia ere sendatu behar izan zuten. Berak gogoratzen zue-

nez, Domeq-ek oparitutako zaldia zen. Franco bera ez omen zen joaten zaldia bisitatzen, baina laguntzailea bai, eta sarri.

Albaitari eta ikerlari

Baserriz baserri albaitari lanean ibiltzeaz gain, bere ogibideari lotutako ikerketa lanak ere egin zituen. Aurrez aipatu bezala, Villa Consueliton, Gaudenzio Arregirekin batera albaitaritzaz klinika bat jarri zuen. Horretan, gero beraien ikerketetan bezala, aurreratuak izango ziren. Garai hartan ez zen horrelako beste klinikarik izango inon, baina Arregi eta Zurutuza aitzindari izan ziren, bai klinika jar-tzen, baita egingo zituzten ikerketetan ere.

Ugalketa, antzutasuna, irentzea, zesarea eta beste hainbat kontuz arduratzen ziren eguneroko lanean. Ikerketarako, ordea, in-tseminazio artifiziala izango zuten buruan, besteak beste.(...)

Euskara ahoan eta bihotzean

Zaila da euskararekiko harra noiz sartu zitzaion asmatzea. Kontatu ohi zuenez, Zaragozan ikasten ari zela, han zeuden euskaldunak elkartu, eta euskararen eta euskal kulturaren inguruan hainbat ekintza antolatu zituzten. Ordurako, beraz, hasi zen euskararen aldeko apustua egin eta kultura bultzatzen.

Gerra ostean ere, giro zailean, diktadura garaiko urte zailetan ere zirrikituak bilatuko zituen ahal zuen bozgorailua erabiliz euskaraz aritzeko. Aipatzekoa da, benetan *La voz de Guipuzcoa* irrartian urte luzez egindako lana.

Euskarak alor publikoan tarterik ez zuen garaian, oso jarraitua izan zen irratia-saioa egin zuen euskaltzale talde batek, eta tartean zen Enrike, Joxe Miel baserritarrarena egiten. Irratsaio hartan 25 urtetik gora egingo zituen baserritarrei ganadu zein baserri munduko beste hainbat arlotako aholkuak ematen.

Abertzale izan gabe, euskararen aldeko apustu sendoa egin zuen. Herriaren arima hizkuntza zela esan ohi zuen, eta hura defendatzen zuen. Baina bazen gustatzen ez zitzaion kontu bat. Kontu garrantzitsua, gainera. Ez zuen euskara batua maite. Ez zitzaion gustatzen, eta euskalkien kontraktatzat zuen. Lekuan lekuko euskara zaindu eta entzutea gustatzen zitzaion, eta euskara batuak hori zapuztuko zuenaren ustea zuen.

Autodidakta izan zen euskaraz ikasterakoan ere. Inoiz ez zen inora joan euskaraz idazten ikasteko, baina liburu eta apunteetatik jasotako jakituriarekin hainbat komunikabide-tarako ehundaka artikulua, eta erretiratu ostean hainbat liburu idatzi zituen, euskaraz.✱

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
BILDU	15 72 00

FARMAZIAK (AZAROA)

EGUNEZ

1-5-10-11-16-22-28	2-7-14-20-23-26	3-4-8-15-27
Jacome (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).
943 080258	943 815974	943 811274

GAUEZ

1-13-14-26	2-15-27-28
Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 852989	943 851235

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Azaroaren 28an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

EA	81 00 11
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEA

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
------------------	----------

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ■ Asteguna: 08:30-14:00 ■ Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** ■ Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ■ Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ■ Astelehena: 14:00-21:00 ■ Beste astegunak: 07:00-21:00 ■ Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ■ Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ■ Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ■ Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ■ Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ■ Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ■ Larunbata: 09:30-13:00 ■ Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPOTXOKO** ■ Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ■ Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



SANAGUSTINEN ARBELA

Kulturguneak arbel bat jarri du areto atarian, datorren ekitaldiare berri eman eta, hartara, plazatik pasatzen ari den jendeak ikus deza zer dagoen. Jende gehiagorengana iristea da helburua.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

■ autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

3-4-29-30	5-6-7-8-9-10-11-19-20-21-22-23-24-25	12-16-17-18
Ruiz (Azkoitia).	Jacome (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).
943 851966	943 080258	943 850660

TONY BYRNE

Belfast, Irlanda

“Urrestilla independentea da nire bihotzean”

Urrestildar batekin maitemindu zen, Irlandan. Duela bost urte etorri zen hona, eta “gustura” bizi dela dio.  A. Agirrezabala

Nolatan zaude Urrestillan?

Nire emaztea euskalduna da, urrestildarra. Irlanda mendebaldean ezagutu genuen elkar 2003an, lan kontuak medio hara joana baitzen. Marroi koloreko begi ederrak zituen eta maitemindu egin nintzen. Belfasten jarri ginen elkarrekin bizitzen. 2006an, Antton semea jaio zenean, emazteak esan zidan etxera bueltatu nahi zuela. Hala etorri ginen.

Zer moduz Urrestillan?

Urrestildarrak zoragarriak dira. Familia handi bat gara. Oso eroso eta gustura nago. Irlandarrak eta euskaldunak oso antzekoak gara.

Euskara ikasten ahalegintzen al zara?

Nahi dut ikasi, baina euskarako klaseen ordutegia ez da egokia niretzat. Emazteak lana egiten du eta arratsaldez seme-alabak zaindu eta afaria prestatu beharra dut. Irakasle ona behar dut, ikasle zeharo txarra naiz eta.

Ingeles-eskolak ere ematen dituzu...

Gluai enpresan egiten dut lana, ingeleseko irakaslea naiz. Gainontzean, lagun-talde bat elkartzen gara ingelesa praktikatzeko.

Jaioterrira bisitan joateko ohiturarik ba al duzu?

Urtean bitan, udan eta gabonetan, joaten naiz familiarekin. Seme-alabek asko maite dute Irlanda.

Nola aldatu da Belfast haurtzarotik?

Irlandan hazi nintzen, Belfasten eta biolentzia handia zegoen. Egunero egiten zuten ez-tanda lehergailuek, metralladoreen tiro hotsa entzuten genuen kalean... Gertatzen ari zena ez nuen ulertzen eta, beraz, oso dibertigarria zen. Nire gurasoentzat, berriz, egoera oso zaila zen hura. Egun, egoera oso bestelakoa da, baina oraindik arazoak daude protestanteen eta katolikoen artean.

Zer botatzen duzu faltan handik?

Ama, Guinness garagardo ona, Irlandako janari tipikoa eta hango hondartzak. Jende gutxi izaten da eta zoragarriak dira.

Euskaldunon zerk harritu zaitu?

Bertako jatekoa bakarrik jaten dute batzuek. Saltsa bereziren bat-edo ateraz gero, ezta probatu ere! Ikuspegi itxia dute horretan.

Urrestillaren independentzia nahi al duzu zuk ere?

Bai, noski. Paperetan ez, baina nire bihotzean eta buruan Urrestilla independentea da.*



1

1. Urrestilla sarreran. 2. lazko abuztuan, Irlandan. 3. Antton (sei urte) eta Anne (hiru urte) seme-alabekin, uda honetan, Irlandan.



2



3

Viviana

V

iviana 30 graduko tenperaturak bizi zuen. Hartara zegoen ohituta Yotoco Buga Cali Medellin Kolonbiako tropikotan. Hemen, berriz, 4-5 gradu besterik ez zuen egiten bera etorri zenean, negu atarian.

Bilbora iritsi zen lehenengo, eta handik Miranda Ebrora joan zen, Kolonbiatik irteteko-tan hotel batean hiru gauren erreserba ordainduta irten behar zuen-eta. Turismo aitzakia zetorren, horixe adierazi beharra zion poliziari, hangoari, hemengoari.

Vivianak ez zekien zer izan zitekeen Miranda Ebro hura, zen herria, zen hiria edo New Yorken auzoa! Bidaia-agentziak egin zuen erreserba, zuzendu zuten Vivianaren bidaia. Neskak nahikoa izan zuen pasaportearen erakustea. Hori, eta gestioa hegazkin txartela hotela ordaintzeko dirua.

Bilboko aireportutik Mirandara joateko, berriz, taxia hartzea beste biderik ez zuen ikusi. Hari ordaintzeko ere, dolarrak atera behar izan zituen kolkotik, han gordetzen du-eta, oraindik ere, Vivianak dirua. Etorriberri zen hartan, beste dirurik ez, ez kolonbiar pesorik ez hemengo euro berri hura, "dolarrak ditut!", esan zion gidariari: "Ekarri 100 dolar!". Eta ehun dolar eman zizkion Mirandako hotelaren atarian. Orduan, bakarrik ikusi zuen bere burua. Mirandatik pasatzen den guztietan, hantxe ikusten du, gaur egun ere, neskak hotela, bost izarrekoa, handia.

Biharamun eguerdian, 12:30ak aldera, hoteletik joatea erabaki zuen, hiru gau ordainduta izan arren. Harreran zegoen neskari joan eta esan zion: "Joan naiteke hoteletik?", "Bai, akabo bada! Ez zara preso!".

Donostiara joan behar zuela esan zion, handik Azpeitira joateko. Hala egiteko esan zioten Kolonbian, hemen bizi zituen lagunekin telefonoz hitz egin zuenean. Eta "Donostia" esan zioten garbi: "Ez ezazu 'San Sebastian' esan, beste bat badago eta, San Sebastian de los Reyes, eta zu hara eramateko kapaz dira! Zuk, esan 'Donostia'. Handik ekarriko



|||||||miel a. elustondo|||||

|||Ez ezazu San Sebastian esan, beste bat badago, San Sebastian de los Reyes, eta hara eramateko kapaz dira

zaitugu Azpeitira". Vivianak ez zekien zer dela eta zen "Donostia", ezta zer ote zen Azpeitia ere. Baina "Donostia" esan behar zuela esan zioten eta horixe egin zuen gajoak, "Donostia" esan.

Hoteleko harrerako neskak mapa jarri zion eskuan, Mirandakoa, tren geltokira joateko. "Zoaz zuzen, eta han, Donostiara trena hartu!", esan zion aingeru guardak. Berak hots egin zuen geltokira, eta trena zein ordu-tan pasatzen zen ere esan zion, azken oharra egin baino lehen. "Mugi, logela eguerdia baino lehen utzi behar izaten da, horrela da araua, eta ordu bata da, eta nagusiak oraindik hemen zaudela ikusten bazaitu, gehiago pagaraziko dizu. Hamabiak ezkerro, eguna kobratzen dizute! Arin ibili".

Hotelean emandako gaua ordaindu behar izan zion, hala ere, nahiz eta Kolonbiatik hiru gau ordainduta etorri! "Ordainduko dizut, baina dolarra besterik ez daukat!". "Aldatuko dizut dirua". Hogeita hamar dolar kobratu zion gaua, eta beste hiru dolar, komisioa, Vivianari...✱

1.solairuan gaude

urrategideko
altzariak & sukaldeak

Sukaldeak · Logelak · Egongelak · Sofak · Haurren logelak



Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es





Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1
Tel/Fax: 943 81 16 50

Udazkena



Negua



2012/13



innovadental



innovadental

Bisita gaitzazu:

José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:

943 02 59 55

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTetik gora

Eskatu presupuestoa eta kontsultatu gure finantzaketa!

hortz-klinika
AZPEITIA